

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuia udalerriko kontzejuentzat 2026eko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2026ko apirilaren 16ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 906607.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/906607>).

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradun izan daitezke Zuiako udalerrian legez eraturik dauden toki erakunde edo administrazio batzar guztiak, bakoitza bere eskumenen eta azpiegituren eremuan.

Bigarrena. Xedea

Diru-laguntzen bidez, udalerriko toki erakundeekin lankidetzan aritzea, aurrekontu mugen barruan, haien azpiegiturak hornitu eta jartzeko, hobetzeko, berriztatzeko, handitzeko, eta, kontzejuen jabetzakoak izan ez arren, herriaren zerbitzurako erabiltzen diren higiezinaren mantentze lanak egiteko, eta horretaz gain, zerbitzu egokiak emateko, herritar guztien bizitza maila hobetzen laguntze aldera, baldintza berberetan. Udal lurralde osoan garapen eraginkorra, uniforme eta koherentea lortzen saiatu.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 16an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

3.1 apartatuko dirulaguntzen kasuan, g) apartatuari dagozkionak izan ezik, gastu horiek babesten dituen aurrekontu-partida 943.734.000 da, "administrazio-batzarretarako dirulaguntza" izenekoa, Zuiako Udalaren 2026ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 200.000,00 eurokoa. g) apartatuko dirulaguntzen kasuan, gastu horiek babesten dituen aurrekontu-partida 171.434.000 da, 20.000.00 eurokoa. 3.2 eta 3.4 ataletako diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2026ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko diren partidak: bata, "administrazio batzarrentzako diru-laguntzak argiteri publikorako" izeneko 165.434.000 partida, 60.000,00 eurokoa, eta, bestea, 30.000,00 eurokoa "kaleen garbiketa, udala eta kontzejuak" (udalak zuzenean emandako zerbitzu bat baita) izeneko 163.227.030 partida.

3.3 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2026ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "administrazio batzarren jaietarako diru-laguntza" izeneko 338.434.000 partida, 44.000,00 eurokoa.

3.5 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2026ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: nekazaritza eta abeltzaintza bideak garbitzeko diru-laguntza izeneko 410.227.011 partida, 14.000,00 eurokoa. Udalak gastuaren ehuneko 50a ordainduko du eta beste ehuneko 50a kontzeju eskatzaileei jasanaraziko die.

3.6 ataleko diru-laguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2026ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "kontzejuentzako diru-laguntza elurra kentzeko" izeneko 134.434.000 partida, 8.000,00 eurokoa.

3.7 ataleko gastuetarako, hona Zuiako Udalaren 2026ko gastuen aurrekontutik erabiliko den partida: "diru-laguntzak, administrazio batzarrak" izeneko 943.434.000 partida, 8.500,00 eurokoa.

Azkenik, 3.8. Ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratu eta ondasunak jabetza-erregistroan inskribatzea ataleko gastuak 2026ko ekitaldiko 943.734.010 (inbentarioa) partidaren kargura diruz lagunduko dira. Horren zenbatekoa 2.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek eskabidea beteta aurkeztu beharko dute 2026ko azaroaren 30era arte.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2026ko maiatzaren 19a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA